

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ane Ugarte Garitaonandia

*Oñati,
Gipuzkoa
(1993)*

Aurkibidea



Biografia



Murgia auzoko Azkarreta baserrikoa. 7 urtetatik unibertsitate garaira arte Laudion bizi izandakoa, ondoren Oñatira bueltatu zen. [Ingo xonau!](#) proiekturako, Oñatiko emakumeen hika jasotzeko egindako elkarrizketa. Aneri amak ([Marije](#), proiektu bererako elkarrizketatua) hika egiten dio.

Zintak

ONA-275

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-03-05
- **Iraupena:** 37 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

ONA-276

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-03-05
- **Iraupena:** 9 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Ama hika egiten hasi zitzaien anaiari eta berari

- **Erref:** ONA-275/002
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:01:09. **Bukatu:** 00:04:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Etxean jaso du hitanoa. Bere amak-eta hika egiten dute senide artean. Anaiari eta berari zuka egiten zien umetan, baina egun batean hika egiten hastea erabaki zuen. Anek ez dauka norekin hika egin. Audioko lagunekin euskaraz egiteko ere nahiko lan izan du.</p>

2. Zeinek egiten dion hika

- **Erref:** ONA-275/003
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:04:41. **Bukatu:** 00:07:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Anaiarekin esaldi solteak bai, erabiltzen ditu hika Anek. Baserri giroan errotuago dago hitanoa; basoko batzordean dago, eta haiek hika egiten diote; berak zuka erantzuten die. Amonak hika egiten zion, eta izebak ere batzuetan egiten dio. Bere Oñatiko koadrilan gurasoek inori ez diote hika egin izan, eta zaila ikusten du ohitura hori hartu ahal izatea.</p>

3. Hika egitea, konfiantza seinale

- **Erref:** ONA-275/005
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:07:57. **Bukatu:** 00:11:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Amak den-dena hika egiten dio orain, egoera guztietan. Kosta egin zitzaion hasieran, baina orain modu automatikoan egiten du. Amak esaten dio gurasoei ezin zaiela egin, eta berak ez dio egiten. Apaizei ere ezin zaie hika egin. Amak ahizpa monjari bai egiten dio hika (ahizpa delako monja baino lehen). Botere harremana markatzen duen tratamendu bat da hitanoa.</p>

4. Ohiturak aldatu egiten dira: berorika

- **Erref:** ONA-275/007
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:12:20. **Bukatu:** 00:14:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Adin diferentzia egon arren, laguna izanez gero posible da hika egitea. Auzoko gizon batek aitari berorika egiten zion, eta hori galdu zen bezala hitanoarekin lotutako ohiturak ere aldatzen ari dira.</p>

5. Amak hika egiten dionean, harridura

- **Erref:** ONA-275/008
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:14:06. **Bukatu:** 00:15:36

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Amak hika egiten dionean, lagun batzuek harritu egiten dira. Laudioko lagunak ez dira konturatu ere egiten, ez dakite zer den ere. Aneri, berriz, ilusioa egiten dio amak berari hika egiteak.</p>

6. Oñatiko nokaren galeraren arrazoiak

- **Erref:** ONA-275/010
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:15:46. **Bukatu:** 00:19:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Zergatik joan da galtzen noka eta toka ez Oñatiko? Neskei errespetua izatea eskatu zaie eta sozializatzeko ere beste bide batzuk izan dituzte gizonak. Orain, nahiz eta jakin, egitea zaila iruditzen zaio berari ere.</p>

7. Ohitura aldatzea zaila iruditzen zaio

- **Erref:** ONA-275/011
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:19:47. **Bukatu:** 00:21:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Etxean jaso duten apurrek ez dute eduki zeinekin egin. Irati Barrena aipatzen du, proiekturako elkarrizketatutako gazteetako bat (Ongi tabernan egiten du lan neska horrek). Hastea izango litzateke, baina salto bat iruditzen zaio.</p>

8. Hitanoaren egoera Oñatin

- **Erref:** ONA-275/012
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:21:34. **Bukatu:** 00:24:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Euskararen egoera Oñatin askoz hobea da Laudion baino, baina hitanoa ez du osasuntsu ikusten: forma asko gaizki erabiltzen dira gazteen

artean. Azkoitin osasun hobeia du hitanoak. Bere mutil-lagunak beti hika egiten du mutilak diren lagunekin. Oñatikoek, berriz, hika eta zuka nahasten dute.</p>

9. "Xaukena xauk" modan, Oñatitik kanpo ere

- **Erref:** ONA-275/013
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:24:55. **Bukatu:** 00:27:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>"Xaukena xauk" espresioari buruz. Gaur egungo gazteentzat hitanoa erakargarria da, Aneren ustez, baina ez daki ahalegin hori egiteko prest dauden. Exotikoa izan daiteke gazteentzat.</p>

10. Hika egitea "plus" bat da Anerentzat

- **Erref:** ONA-275/014
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:27:57. **Bukatu:** 00:29:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Onintza Legorburuk Antzuolan egindako ikerketaren arabera, mutil gazteentzat 'plus bat' da hika egitea: 'euskal label' batekin lotzen dute. Anek ere bai. Erakargarria egiten zaio.</p>

11. Hika, egoera informaletarako

- **Erref:** ONA-275/015
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:29:56. **Bukatu:** 00:31:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Mutilek ez dakite noka egiten, eta toka ere gaizki egiten dute askotan. Hitanoa konfiantzarekin lotzen du Anek, eta parranda giroarekin. Ez da egoera formaletarako.</p>

12. Hika galduko balitz, zer?

- **Erref:** ONA-275/016
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:31:14. **Bukatu:** 00:33:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Galtzea penagarria litzateke. Egunen batean alaba bat balu, ez du uste hari hika egiteko egingo liokeenik, berak bere amari bezala. Ingo xonau! ekimena sortu den arte ez du kontzientzia hartu, galdu egin daitekeenik. Pereza emango lioke hasieran hika-tertulietan parte hartzeak, baina merezi duela uste du.</p>

13. Zer egin noka berreskuratzeko?

- **Erref:** ONA-275/017
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:33:40. **Bukatu:** 00:35:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Zer egin noka modan jartzeko? Ahalduntze-prozesu moduan bizitzeak lagundu dezakeela uste du, baina berarentzat eraginkorragoa da konfiantza-zirkuluak sortzea. Hika-tertuliak egitea ideia ona iruditzen zaio.</p>

14. Ingo xonau!

- **Erref:** ONA-275/020
- **Iraupena:** 0:00:04. **Hasi:** 00:36:58. **Bukatu:** 00:37:02

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak

Laburpena:

Ingo xonau? esaten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com